

¡EMEN-DEK!

DONOSTIAR bat bakarra dagon bitartian, ez liteke Iriyarena-rik aita-tu *jemen-dek!* oju egin gabe.

Dirala gazte edo zarrak, nagusi edo morroi, aberatz edo beartzu, oju ori adituko da berialaše.

Oroitzen naiz euskal jai-aldi batzubetan, diputadu jaunak, erriko agintari, eta beste zenbait jaun argidotar bazkaritan ari ziran, guztizko errespeto aundiyan zeuden guziak, eta alakorik batian agertzen dira chistulariak eta ekiten dute *Iriyarena* jotzen..... ¡Entzun zan *jemen-dek!* bat, Ameriketan bertan adiruko zana!

Orra zergatik aurreko orrian *Iriyarena* azaldu degunian, bigarrenian *jemen-dek!* oju egin biarrian arkitu geran.

Bañan soñu edo oju orrekin ez degu agertu nai izaten donostiarrak, gure iri jokurako zaletasuna.

Ez, erakutzi nai degu gure donostiartasuna. Soñu orrekin ta oju orrekin, agertzen degu gure erri kutun, gure oitura alai, gure kondaira betikoen maitetasuna.

Eta beñere baño biarragoa derizkiot orain gure donostiartasuna erakuztia, bada badirudi Donosti-zarra-ren arrasto guziak chetu nai ditutela batetan, kondaira gabeko erria gure erria balitz bezela, gurasorik gabeko semiak bagiñake bezela.

Erakutzi biar diegu donostiarrak, oraindik ere bagerala gure erri zoragarri ari maitasun bero, pizkor, sutzoa diogunak.

Donostiarrak gerala ta donostiarrak nai degula izan.

Eta donostiarrak nai degula izan, egiyazko euskaldunak izateko.

A. DARRA